

ALDAPEKO SAGARRAREN musikaren partitura



VARIANTE II

Sagar-a-ren a-dar-a-ren lo-re-a-ren pun-ta-ren
 pun-tan txo-ri-ño-a ze-go-en kan-ta-ri ta
 txi-ru-li-ru-li ta txi-ru-li-ru-li nork
 dan-tza-tu-koo-te-du so-nu o-ri on-gi, on-gi.

Variante 2.^a. La aprendí de Saturnina Otegi, de Astigarraga (G).

Euskal Herri osoko eskualde askotan modu batera edo bestera oso ezaguna da "Aldapeko sagarraren" kantua, baina, gehiagotan azaltzen da "Sagarraren adarraren" bezala. Abesti polit honen bariante ezberdinak jaso zituen Resurrección M^a de Azkue-k bere bilduman "Cancionero Popular Vasco". 1968. urtean "LA BIBLIOTECA DE LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA" argitalpenean agertu zen bere bigarren edizioa. Kantutegi hau Euskal Herriko lan folkloriko garrantzitsuena eta musika emankortasunaren froga hobereena izan daitekeela esan da. Urte luzeetan eta bazter guztietan bila ibili ondoren lortutako emaitza jaso zuen "Vox populi" izenpean eta Euskal Aldundiek 1912. urtean antolatutako lehiaketa irabazi.

Horietakoa bariante bat Astigarragako Saturnina Otegi erakutsitakoa da. Denera lau abesti jaso zituen Astigarragan.

Astigar dantza eskolak 2008ko Santio eguneko dantza saioan estreinatu zuen herriko abeslari batzuk abestuz eta txistuaz lagunduta. Beste zortziko bat ere dantzatu zen "Txotx" izenekoa, Miel Joxe Astarbe eta Pello Urreagarena eta azkenik "Sagardua" izeneko bals-a, Susana Aurkia eta Andoni Arzallusena.

Hauk izan ziren hiru dantzak SAGARRA, SAGARDOA eta sagardoa edaten: TXOTX!!

Astigar dantza eskola